

## JOAN MARI IRIGOIENekin ELKARRIZKETA

---

*Altzak, gure herriak, garai batean, bere nortasuna zuen; gaur, ordea, erdi galduta gaudela esaten badugu ez dugu gezur handirik esaten; hori dela eta, nortasun hori berreskuratu nahian, herritar batzu bildu eta Altzako historiari "hautsa kendu" asmoz, ale hau argitaratzea erabaki genuen.*

*Gure helburua betetzeko ongi iruditu zitzaigun altzatar den J. M. Irigoien idazlearekin elkarrizketatxo bat edukitzea, bera ere, altzatar guztiok bezala, historia horren parte denez gero.*

*Guk, geure aldetik, galdera batzu pasa dizkiogu, berak etxean lasaiago eta askatasun osoz erantzun ditzan.*

*Hona hemen, bada, elkarrizketa horren fruituak.*

— Joan Mari: euskal literaturaren munduan nobelagile bezala zara ezaguna batik-bat, lehen urratsak poema liburu baten bidez eman bazenituen ere, "Hutsetik esperantzara". Zeintzu dira zuretzat euskal nobela berriaren berezitasun nagusiak?

— Puntu honi buruz hamaika gauza aipa daitake: modernotasuna, konta teknika berriak, e. a. Nik, ordea, gauza bakarra azpimarratuko dut, gaurko kontaera berriari etor dakiokkeen onura guztia horren ondorio hutsa dela sinestua bait nago: alegia, orain dela gutxi arteko idazle gehienak liburu bakarrekoak izan badira ere, badirudiela gaurkoak **liburu bakar bat baino gehiagoko idazleak** garela. Eta hori oso garrantzitsua da, zeren horrek hauxe esan nahi bait du: **euskal idazleak idazletzat hartu nahi duela bere burua.**

Izan ere, garai batean **euskal** idazlearen ia helburu bakarra euskara bultzatzea bazen (hizkuntza salbatu beharra zegoen), gaurkoak, helburu hori baztertu gabe, euskal **idazle** bihurtu nahi du, eta nik oso garrantzitsu deritzot salto kualitatibo horri, inork idazletzat hartzen badu bere burua, alor hori beharko bait du landu, teknikak bereganatuz, hizkuntza sakonduz, munduan ematen den literatura estudiatuz... hitz batean literatura biziz.

Hau entzunda, norbaitek galdera zorrotz hau egin lezake: “Baina nola literatura bizi, literaturaz bizi ezin bazarete?” Literaturaz bizi, bai, hori izango litzateke ideialena, baina guztiok ongi dakigunez, ia ezinezkoa, gure liburuen salmentatik ateratako diru-sarrera urriak kontutan edukita. Dena dela, gure grina horri erantzun bat eman nahian, erdi bideko irteera bat bilatzen saiatu gara asko, jornada murrizteko edo jornada intetsiboko lanetara joaz.

Beraz, **euskal** idazlea euskal **idazle** bilakatu da, honek azkenean zera suposatzen duela-rik, kalitate handiagoko obrak sor daitezkeela, kalitate hipotetiko hori, azken finean, euskararen mesedean gertatzen delarik.

— Non ikusten duzu zeure lekua panorama horren aurrean?

— Hasteko, gaur egun inoiz baino idazle gehiago bagara ere, oraindik gutxi gara. Hortaz, panorama honen aurrean, ez da zaila lekuren bat izatea, lekua besterik ez dagoen lekuan.

Haatik, oso zaila da nork bere burua inon finkatzea.

Ezer esatekotan, orain artean hegohaizearen eskutik joan naizela esango nuke nik: hegohaizeak errealitatea eta fantasiaren arteko haustura bizi du, baina era berean badaki bata bestearen gainean nola teilaka daitekeen, biak iluntsiaren argi malenkoniatsuetan murgiltzen direnean batez ere.

Hegohaizea irekitasuna da, zabaltasuna... Horregatik, literatur korronte guztietara zabalik nago.

Beraz, euskal nobelan inoiz ezaguna izango banintz —egia esan kezka horrek ez dit lo egiteko gogo kentzen—, nire irekitasunagatik ezagutua izatea gustatuko litzaidake, nire leku hori leku guztietan bailegoan, leku guztietan eta inon ez.

Eta loa aipatu dudanez, esan dezadan Euskal Herriko Loti orenen patroin inoiz izendatuko nauten esperantza dudala, nire “Poliedroaren hostoak” nobelarekin makina bat jende lotan utzi dudala kontutan edukita, hamargarren orritik ezin pasa... Horrez gain, bai liburu hori eta bai azkenekoa, “Udazkenaren balkoitik”, biak almohadatzat har daitezke, nahi denean, biak lodi samarrak direnez gero: bai, martxa honetan Pierre Loti bera ere atzean utziko dudala iruditzen zait...

— Zer euskara moeta darabilzu zeure nobeletan?

— Niretzat euskara batua da bizkarrezurra.

Hori dela eta, askotan entzun behar izaten ditugu kritikak: euskara batua aseptikoa dela, hau eta beste.

Nik uste dut hori egia dela, maila batean ordea, eta maila txiki batean gainera.

Zeren euskara batua beharko lukeen baino aseptikoagoa bada, badira arrazoiak. Alde bate-tik, beharbada, idazleok ez dugu asmatu behar bezala (gure ahozko eta idatzizko tradizioan be-har bezain beste sakondu ez dugulako). Baina niretzat badago beste arrazoi bat, askoz sakonagoa: irakurlearena. Saiatzen al da irakurlea euskara batua **berea** egiten? Ulertzen al du irakurleak, euskara salbatuko bada, beharrezkoa dela euskara batua? Eta ulertzen al du ohituraren ohituraz azkenean normalago bihur dezakegula guztia? Euskal Tebistan gertatzen den bezala: niri ere, hasieran, orain baino arraragoa egiten zitzaidan, baina beti ere **nirea** egiten saiatu naizelako, normalagoa egiten zait orain (hanka-sartze gramatikalak aparte, jakina!).

Eta zer esanik ez gure haurrei begira: beharrezkoa den hizkuntza batu horretara txikitandik ohitzen badira, izango al dute arazorik? Eta gure proiektu nazionala ez al da aurrera begira egin behar? Orduan...?

Noski, euskalkiak ere hor daude, eta nik defendatzen dudak euskara batua euskalkietara zabalik dagoen euskara batua da, hori ezin ahaztu.

Eta euskara horretan idazten dudanez, bete egiten ditut edota betetzen saiatzen naiz Euskaltzaindiak bere garaian ipini zituen arauak.

Eta Euskaltzaindia aipatu dudanez, kritikatzeko bat egin nahi nioke. Zeren bere lana handia izan dela aitortzen badut ere, ez al da hainbat gauzatan bide erdian geratu? Noizko hitano batua, esate baterako? Ez al zen/da behar-beharrezkoa hori lehenbailehen batzea?

Beste arazo bat erregistroena da. Berdin hitzegin behar al dute abokatu batek eta baserritar batek? Edota orain arte abokatuek, beren gaiez hitzegiterakoan, gaztelaniaz hitzegin dutelako, beti gaztelaniaz jarri behar al ditugu hizketan? Nire eritziz, salbuespenak salbuespen, ezetz esan-gu nuke. Noski, horrek konplizitate berri bat eskatzen du irakurlearen aldetik, erregistro horiek, hasiera batean, artifizialak gerta bait dakizkioke.

— Zer gai erabili beharko lirateke zeure ustez gaur egun?

— Gai luzea, bai, hauxe, nahiz gero! Nik, ordea, lerro gutxitan emango dut neure aburua, norbaiti entzun niona labur erantzunez: hark zioenez, munduan zehar idatzi dena kontutan edukita, dena kontatua dago eta ez dago zer idatzirik. Nik berriz, zera diot, euskaraz ezer guxi idatzia dagoela eta guztia egin daitekeela, egin behar dugula, nobela tradizioaletik experimentaleraino, bertakoa eta exotikoa, gai guztiak konplexurik gabe ukituz.

— Zer funtzio ikusten diozu euskal nobelari?

— Alde batetik, kanpora begira, Irrati eta Telebistarako zenbait gidoreen iturri izan daitezke gure izkribuak.

Baina niretzat badago beste alor bat, inportanteagoa oraindik; apalagoa beharbada, baina baita sakonagoa ere: liburu-irakurlearekin sortzen den harreman misterioitsua, intimoa. Batzuen eritziz, videoak eta konputagailuak direla eta, liburuaren kultura amaitzeaz dago. Eta neurri batean egia dela iruditzen bazait ere, bestetik ez dut uste liburuaren kultura inoiz bukatuko denik, zeren beti egongo bait dira gelaren isiltasunean edota erreka ertzeko haltz horren itzalean liburuaren bat irakurtzen ihardungo duten zoroak, irakurle zoro maitagarriak.

— Galdera hau askotan egingo zizuten, baina, tira...! Zergatik idazten duzue idazleok? Zergatik idazten duzu zuk?

1) Gure iragana joana da eta iraganarekin batera bizitza doakigu ihesi. Gure bizitzaren se-gunduak eskuetako hatzen arteko zirrituetatik ihesi doazkigun ur xortak dira. Baina ur xorta ho-riek ontzi batean jasoak eta errekuperatuak izan diatezkeen lez, ez ote da gure liburu bakoitza, ihesi joan zaigun denbora hori berreskuratu nahi duen ontzia?

2) Bizitzari begira jartzen gara eta sarritan ametsa dirudi. Liburu baten bidez forma ematen diogunean, ordea, errealtatearen ilusioa ematen digu, deskribatzen ditugun une horiek egiazki gertatu balira bezala... edota une haien gainean beste une batzu sortuz, egiazkoak ziren haiek baino egiazkoagoak...

3) Egia da batzutan, idazterakoan ridikulua sentitzen naizela; egia da, baita ere, batzutan sufritu egiten dudala... baina batez ere gozatu egiten dut eta gozaten dudalako idazten dut: askotan hitz bat bere lekuan, metafora bat... aski dira barnelilura handi bat sentitzeko, metafora hori ni neu transzenditzen nauen zerbaiten adierazgarri bihurtu bailitzan.

4) Baina badago beste puntu bat ni sarritan kezkatzen nauena: banitatea. Ez ote dugu idazten banitateagatik? Nik behintzat, hori dela eta, badaukat edo bizi dut barneburruka bat. Zeren nik nahiago bait nuke idazte prozesu horretan zerbait garbiago balego. Adibidez munduan asko ikusten da, gremio berekoak izanik, batek besteak baino hobeto egitea gauzak eta azken honek inbidiaren antzeko zerbait sentitzea... “Hi, horrek hik baino hobeto idazten dik” eta beno, hor barruan zerbait, garbia ez den zerbait sentitzea. Baina nik ere zerbait esan behar dizuet, gizona bi aldetatik azter daitekeela: alde batetik, bere instintua, bere bat-bateko erreakzioak, borondarearen gainetik daudenak; baina gizona egin ere egin daiteke, egiten da... eta nik, behintzat, badaukat horren aurkako armarik: sublimazioa. Nirea baino hobea den beste idazle baten liburu irakurri... eta lehenengo bekaitzaren ondoren, barruan beste indar bat sentitu, zera dioena: “Zorionak, zorionak...” Eta irakurketa bukatu ahala, luma hartu eta idazle horri idatzi, sublimazioaren suak ezereztatutako inbidiaren gainetik, bake handiz eta pozez: “Hi, bihotzez, zorionak...”

Beraz, banitatea hor dago, baina nire idazketa banitatea gaintitzeko arma bihurtu nahi dut.

— Beste elkarrizketaren batean zenbait idazle hegoamerikarrek zugan izan duen eraginaz hitzegin izan duzu...

— Hego Amerikara egin nuen bidaiak erruz suposatu zuen niretzat.

Han beste herri bat maitatzen ikasi nuen, baina han ere inoiz baino euskaldunago sentitu nintzen.

Nire idazteko erabakia ere hantxe hartu nuen.

Han ezagutu nuen lehenengo amerikar idazlea bere liburuen bidez: José María Arguedas; baita bigarrena ere: Scorza (eta nola sentitu nuen haren heriotza hegazkin istripu hartan nire bizitz puska bat harekin batera hil bailitzan!); eta atzetik gainerakoak: Sábato, García Márquez, Icaza, Rómulo Gallegos, Vargas Llosa, Miguel Otero Silva, Conti... eta beste hainbeste.

Baina batez ere, Juan Rulfo, liburu bakarreko idazle hori.

Eta gaur, irratian XIV mendeko madrigale batzu ematen ari diren bitartean, Rulfok maiz egiten zuen lez nik ere begiak ixtea deliberatu dut, eta hegan utzi dut joaten neure gogoan. Eta banoa, bai, banoa, bi altzifrek mugatzen duten burnizko ate baten ondoraino. Atean jo dut, baina ez zait inor etorri. Deihadarka hasi naiz eta alferrik. Atea nik neuk zabaltzea erabaki dudana arte. Atea irekitzerakoan kirrink eta karrank hasi da, heriotza burniaren herdoiletik hizketan ari balitzaidan.

Pauso bat aurrera egin dut, bi eta hiru... eta han hilobi bat: “Aquí yace Juan Rulfo”.

Comala-n nagoela ulertu dut.

Eta ez dakit jadanik bizirik ala hilik nagoen.

— Juan, ¿estás ahí? — itaundu diot.

— Sí — ihardetsi dit, eta hitzik esateko betarik eman gabe, hizketan jarraitu zait:

— Ya sé a qué has venido...

— ¿Sí...? ¿Cómo puede ser eso si yo tampoco lo sé?

— Tú ya sabes lo que dijo el filósofo: “Sólo sé que nada sé”, y el que nada sabe lo sabe todo.

— Entonces no es tu caso, porque al saber eso, ya sabes algo.

— Sí, tienes razón... Y porque creía que sabía algo, dejé hablar a Pedro Páramo, ¿te acuerdas?

— Sí.

— Y la gente decía por mí: “Ese sí que sabe...” ¿Te acuerdas también?

— Cómo no voy a recordar...

Eskutik helduta bere etxeko liburutegira eramán ninduen.

— Pero lo que la gente nunca supo fue que aquel libro no era más que el preludio del segundo libro que...

— Pero si sólo escribiste... prácticamente uno.

— ¡Ay, tú también como ellos...! ¡Y eso que has conseguido entrar en Comala!

— No te entiendo...

— El primer libro fue como la senda que me encaminó al segundo... al definitivo... a aquél en que definitivamente lo supe todo, porque ya nada había que aprender. ¿Quieres que te lo lea?

— Sí.

Juan Rulfok eskua apal batera eramán zuen. Eta orduan, orduantxe bakarrik konturatu nintzen apalak hutsik zeudela. Gero, liburu bat hartu balu bezala egin zuen.

— ¿Ves este libro?

— No, yo no veo nada...

— ¿Cómo vas a verlo si todo él, si todas sus páginas están hechas de silencio...? —eta liburua zabaldu zuen.

Eta orduan instant bat, guztira hedatzen hasi zen isiltasun osozko instant bat, iragana, geroa eta oraina, hirurak batera harrapatu bailituan.

Instant bakar bat izan zen, bai... eta niri ere, instant hartan, guztia nekiela iruditu zitzaidan.

— Eta zer iruditzen zaizu orain zeure nobeletara hurbiltzen bagara? Has gaitezen “Oilarraren promesa”rekin.

— Nor bere liburuez mintzatzea ez da gauza erraza, baina, beno...! Nobela hori, hasteko nire lehen nobela da eta Francoren garaian idatzi nuen. Nire asmoa panfletoak bezain aspergarria ez zen panfleto bat egitea zen. Nik badakit bizitza ez dela zuria ala beltza, tartean kolore asko bait dago, baina egia da, baita ere, errealtatea sarritan gordinegia izaten dela eta zuria eta beltzaren arteko aukera baino ez dagoela halakoetan. Esate baterako, Pinocheten diktadura beltza iruditzen zitzaidan orain dela urte batzu (beltza heriotzaren sinboloa bezala hartuz) eta beltza iruditzen zait oraindik. Baina horrez gain, nobela ekologista bat ere bada, ekologia oraindik modan ez zegoen garai hartan. Eta altzarra izanik, nola ez zen izango bada nire lehen nobela, ekologista? Izan ere, gaur egun ere, demokraziaren garaian gauden une honetan, gezurra ematen du nola dagoen gure Altza. Labaienen garaian (eta lehenago ere bai) hamaika bider agindu ziguten **txa-kurtegia** kenduko zutela, fetxak eta guzti jarritz... eta oraindik hortxe dirau perla horrek! Lau-

Aizetatik San Markoraino dugun berdegune bakar horretan (ez bait dago esan beharrik beste guztia hondatu egin zigutela) ez dakit zenbat **zabortegi** jarri dituzten, gure ikusmen eta usaime-naren gozorako. **Gas-hodi** bat ere pasarazi dute orain dela gutxi gure lurretatik, ia inor enteratu ere egin gabe. Eta urrutira joateke, nire etxe aurrean dagoen horma-hesiari nonbaitetik filtratu-tako **ur beltza** dario zirrikitu guztietatik, orain dela **urte t'erd**i. Eta ez uste, behin baino gehia-gotan joana naiz harako udaletxe demokratikora —Donostiakora, jakina— nire protestak azaltzera, demokratikoki eta zibilizatuki, orri batean nire kexa guzti horiek idatziz, baina alferrik! Eta alferrik izango da Donostiak aintzakotzat hartzen ez gaituen bitartean. Horregatik inportantea iruditzen zait Altza garai batean independentea izan zela jakitea eta jakin eraztea jendeari. Egia da Altza bere nortasuna galdu duen herria dela; egia da gure herria desegin zutela eta gure burua altxat-zeko eta nortasun berri bat eraikitzeko, iragana ahaztu gabe, urte batzu beharko ditugula eta agian ez dela hau errebindikazio horrekin zirt ala zart egiteko momentua, baina egia da, baita ere, independentziaren su hori pizturik mantendu behar dela, kondizio hobekak sor daitezenean aurrera egiteko. Eta Donostiak hori nahi ez badu, ken diezazkigutela txakurtegiak, zabortegiak eta zikin-keria guztiak, zer demontre! Bai, altxatarrontzat, tamalez, gauza asko zuriak ala beltzak dira orain-dik, “Oilarren promesa”n bezala.

— “Poliedroen hostoak”...

— Nobela hori anbiziosoagoa da. Zailagoa ere bai, oso nahastua bait da, hautsia, gaurko gizonaren egoeraren araberakoa. Hizkuntza filosofikoa, poetikoa, magikoa... gauza asko egin nahi nuen batera eta ez dakit... Hauxe bakarrik esan diezazuket: badakidala jende gutxi irakurri duela osorik, baina irakurle horien artean aurkitu ditudan gehienak oso aldekoak azaldu zaizkit eta hori, beti ere, pozgarria da.

— “Udazkenaren balkoitik”...

— Hemen ere gure garaiko giroa ukitu nahi nuen, “Oilarren promesa”n bezala, baina dantzan jarritako pertsonaia —eta ez txotxongilo—batzuen bidez. Errealismoa bertagotik ukitu nahi nuen, irudimena erabiliz, hori bai, baina errealismo magikoan erori gabe. Orojakilearen ikus-puntua ere neureganatu nahi izan nuen. Labur esanda bi gauza aipa diezazkizuket: 1) Hasieran nobela erraz burutuko nuela iruditu zitzaidalda baina gerora uste baino zailago gertatu zitzaidalda, orain arte idatzitakoen artean zailena; 2) “Poliedroaren hostoak” hainbeste gustatu zitzaizen gutxi horiei ez zaiela hau hainbestearaino gustatu; eta alderantziz, hura irakurri ezin izan zuten askok hau irakurri ahal izan bai dute eta gustora gainera, jaso ditudan eritziak egiazkoak badira behintzat...

— Eta zure asmoak aurrera begira...?

— Orain nobela batekin nabil: dagoeneko ehunen bat orri ditut eginak; ez dakit noizko bukatuko dudan eta bukatzen badut ere argitaratuko dudan, denbora hauetan kalitateari gero eta gehiago begiratu beharko geniokeela iruditzen bait zait; horren ondoren, badaukat buruan beste zenbait proiektu: bi edo hiru nobela, bai; dena dela, orain egiten ari naizen nobela bukatuta poesia egiteko asmoa daukat; horretarako bi urtetan edo munduan zehar eman diren edo sortu diren zenbait korrante filosofiko eta erlijioso aztertu nahi nituzke —fisika asko interesatzen zait, baina metafisika ere bai— hiztegi propio bat egokitzeko eta horretan oinarrituz merezi duen (?) zerbai egiteko. Baina batzutan pentsatzen dut proiektu hori ez ote den handizalegia, ez dakit...

*Eta lan hau Altzarekin hasi badugu, Altzarekin amaituko dugu, zirkulua ongi ixteko, bertara Joan Marik bere “Hutsetik esperantzara” poesi liburuan idatzitako lehen poema ekarriz:*

Altza:

zu zinen nire jaioterri.

Ume nintzanean

nire etxeko leihoak

askatasun bideak ziren.

Ume nintzanean

zure odola

berde-berdea zen,

eta

zure magalean

aurkitu nuen ama lurra.

Ume nintzanean

mundu guztia

agurtzen zen.

Zure odol berdean,

pinpilinpauxak,

xoriak,

errekak,

zuhaitzak,

gizonak...

izadia nuen maite!

Otso

diru-zurruapatzaileak

etorri ziren arte.

Aurrerapenaren izenean,

errekak zikindu,

airea kirastu,

eta...

M

i

l

a

P

i

s

u

k

o

D

e

a

b

r

u

a

k

altxa

dituzte

Erraldoientzat  
aupatutako hilobiak  
diruditen  
dorre zatar horiek...  
zure berdea  
lurperatu dute.

Hauts,  
ke,  
eta

zimendu,  
lehen izadi bizia zinena,  
orain kanpostu.  
Izadi sarraskitua,  
hila...  
Izadiarekin bat,  
gizonen begiratua ere  
hotza...  
Herri arrotza!  
Herri-toki?  
Zerri-toki...!

Ume nintzenean,  
bai,

nire etxeke leihoak  
askatasun bideak ziren.  
Orain berriz,

leihoak  
presu baten  
dira.

Dilin	Dalan
Hemen bukatzen da	
Dilin	Dalan
heri baten	
Dilin	Dalan
historia	
Dilin	Dalan
Dalan.	

(Altzan, 1988ko urriaren 1ean)